

1.BALIO PROPOSAMENA

Gure proiektuaren bitartez bezeroen ezti nahia asetzen dugu eta erleek sortzen dituzten produktu naturalak hurbiltzen ditugu gizarteari (eta horrekin haien abantailak). Gure banaketa izango da ezaugarri berritzailea, haren ondorioz modu askotan eta jende askori ahalmena emango diogulako gure produktuak kontsumitzeko. Ekoizpenean ez dugu kutsadura sortuko eta horren ondorioz, kutsadurarekin kontzientziatuta dagoen jendearengana hurbildu nahi gara. Ekoizpen prozesuan pertsona behartsuak erabiliko ditugu eta horrela jende hari lagunduko diegu. Gure helburua ezti eta beste hainbat produktu sortzea da modu egoki batean eta jendeari laguntzen.

Gure balioa kualitatiboa izango da, ezti naturala izango delako aditiborik gabe. Hainbat faktore izango ditugu, lehiakideengandik bereiziko gaituena: berritasuna (enpresa berri bat gara merkatuan, aitzindariarik ez daukana eta hasieratik sortuko garena); prestazioak (hainbat deskontu eskainiko ditugu urtean zehar eta hainbat abantaila produktuak kontsumitzean); pertsonalizazioa (produktuak ekoizteko momentuan (saskiak, pack-ak, ...) eta banaketaren momentuan (auto-zerbitzurako makinetan, etxez- etxe, interneten, denda fisiko batean, ...) eskainiko dugu); eskuragarritasuna (esan dudan bezala hainbat motako banaketa egongo da).

Gazteen talde txiki bat gara, benetako elikadura babesten duguna eta ekoizpen naturala babesten duguna. Prest gaude hainbat eskaeretara moldatzeko eta hainbat zerbitzu osagarri emateko, adibidez erleek sortzen duten produktuen erabilera azaltzeko tailerrak, ...

